

ARIKETAK

ADMINISTRAZIO
IDAZKIAK

1 Demagun ondorengo eskabidegilearen datuak horrela jasotzen direla:

Maria Luisa Andoain Agirrezabal, 16.224.769 zenbakidun NANAren jabea, Arrietako udal-liburutegiko arduraduna, (945) 23 45 79 telefonoduna eta Arrietako Txikita kaleko 14,3.ean bizi naizen honek, zera...

Eman itzazu datuok banan-banan eta ez esaldi bakarrean:

Eskatzailearen datuak:

2 Irakurri arretaz segidako eskabide-zatia:

zera ADIERAZTEN DIZUT:

Informatika gero eta beharrezkoagoa dela administrazioko zereginetan, are gehiago, liburuak eta artxibategiak tartean badira. Erronka horri erantzun nahian konputailu berriak ekarri zizkigutela liburutegira orain dela hilabete bat. Konputailuok mahari gainean dauzkagula, baina ez dakigula behar bezala erabiltzen.

Ageri denez, azalpen-zati hau korapilatsua da eta -(e)LA markaz josirik dago. Horrenbestez, eman itzazu hiru azalpenak bata bestearen ondoren eta -(e)LA guztiak kenduta:

Azalpena:

A R I K E T A K

A
D
M
I
N
I
S
T
R
A
Z
I
O

I
D
A
Z
K
I
A
K

③ Jarraian datorren eskabide-zatia subjuntiboz beteta dago:

Horregatik honako hau ESKATZEN DIZUT:

Konputailu berrien funtzionamendua irakasteko ikastaro bat antola dezazuela; ikastaro hori lanorduetan izan dadila eta hemengo langile guztiei joateko aukera eman diezaiezuela.

Hori irakurri ondoren, jaso itzazu eskatutako guztiak banan-banan. Kendu subjuntiboko formak eta, euren ordeztan, -T(Z)EKO jarri.

Eskaera:

④ Irakurri ondorengo egoera:

Uztailaren 5ean 2. hizkuntza-
-eskakizuna egiaztatzeko azterketa
egin zenuen.

Azterketa gainditu ez, eta ondo egin zenuela uste duzunez, HAEEko Euskalduntze Zerbitzuko arduradunari (Ixabel Arana Zugadi) azterketa berriro zuzentzeko eskatu nahi diozu.

Egin ezazu eskabidea zure izenean:

5 Demagun honako datu hauek dauzkagula:

- Zergak bilduko dituenak: zergabiltzailea.
- Lanegunak: astelehenetik larunbatera.
- Bulego-orduak: 9:00etatik 13:00etara.
- Hiriburua: Donostia.
- Foru Aldundiko Ekonomi eta Ogasun Sailak adieraziko du non eta noiz ordaindu behar diren zergak hiriburuan.
- Legearen arabera, %20ko igoera izango dute ordaintzen ez diren zergek.

Datu horien arabera, nola berridatziko zenuke segidako gutuna, artikuluan (19or.) emandako aholkuei jarraituz?

Andre hori,

Gutun honen bidez jakinarazten da urtero bezala jasoak izango direla zergak martxoaren 20tik 30era, lanegunez eta bulego-orduetan.

Era berean, jakinarazten da, epe horretan ordaintzen ez badira, hiriburuan ordaindu beharko direla zergak, dagokionak aditzera emango duen toki-egunetan.

Azkenik, adierazten da, hiriburuan ere ordaintzen ez badira, legeak ezartzen duen igoera izango dutela zergek.

*Horrenbestez,
Idazkaria*

S O L U Z I O A K

1 Eskatzailearen datuak:

Izen-abizenak: Maria Luisa Andoain Agirrezabal
NAN: 16.224.769
Helbidea: Txikita kalea 14, 3. (Arrieta)
Telefona: (945) 23 45 79
Lanpostua: Arrietako udal-liburutegiko arduraduna

2 Azalpena:

- Informatika gero eta beharrezkoagoa da administrazioko zereginetan, are gehiago, liburuak eta artxibategiak tartean badira.
- Erronka horri erantzun nahian, konputailu berriak ekarri zizkiguten liburutegira orain dela hilabete bat.
- Konputailuok mahai gainean dauzkagu, baina ez dakigu behar bezala erabiltzen.

3 Eskaera:

- Konputailu berrien funtzionamendua irakasteko ikastaro bat antolatzeko.
- Ikastaro hori lanorduetan izateko.
- Hemengo langile guztiei joateko aukera emateko.

4

Euskaldunze Zerbitzuko arduraduna
Izabel Arana Zagañi
Euskaldunze Zerbitzua
HAEE

Eskatzailearen datuak
Izen-abizenak: Josan Caballero Agirrezabal
NAN: 16.201.665
Helbidea: Pedro de Asua 17, 3.C 01008 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Telefona: 945 - 22 41 90
Lanpostua: Gasteizko Udaleko idazkaria

Azalpena
. Uztailaren 2. bizimutza-eskakizuna egiaztatzeko azterketa egin nuen.
. Nik besteala usie izan arren, ez dut azterketa gainditu.

Eskaera
. Azterketa berriro zuzentzeko.

Eskatutakoa onartuko dizulekolan, agur.


Vitoria-Gasteiz, 1994ko irailak 22

5 Andre hori,

Gutun honen bidez jakinarazten dizut urtero bezala zergabiltzaileak jasoko dituela zergak martxoaren 20tik 30era, astelehenetik larunbatara eta 9:00etatik 13:00etara.

Era berean, jakinarazten dizut epe horretan ordaintzen ez badituzu, Donostian ordaindu beharko dituzula, Foru Aldundiko Ekonomi eta Ogasun Sailak aditzera emango dizun toki-egunetan.

Azkenik adierazten dizut, Foru Aldundiko Ekonomi eta Ogasun Sailak aditzera emango dizun toki-egunetan ere ordaintzen ez badituzu, %20ko igoera izango duzula zergetan.

Horrenbestez,

Idazkaria